

Lehen Hezkuntzako 3.eko banakako ebaluazioa

2015-2016 ikasturtea

Matematika gaitasuna

KALKULU MENTALEKO ARIKETA

Irakaslearendako jarraibideak

- Giro egokia ezarri, arreta eta isiltasunekoa.
- Esan ikasleei koadernoan 3. orrialdean zabaltzeko, eta azaldu 1. ariketa egin behar dutela eta kalkulu mentaleko 6 ariketaz osatua dagoela.
- Iragarri kalkuluko ariketa bakoitza bitan irakurriko duzula, 5 segundoko eten labur batekin.
- Bitan irakurri ariketa bakoitza, intonazio egokiarekin, eragiketetan dagokion etenak eginez.

A kalkulua	Denda batean sartu naiz eta aurrena 7 euro gastatu ditut, ondoren 9 euro eta azkenik beste 4 euro. Zenbat diru gastatu dut osotara?
B kalkulua	Dendan futboleko 7 kromo-pakete erosi ditut. Pakete bakoitzean 8 kromo daude. Zenbat kromo erosi ditut?
C kalkulua	Dendan 5000 sagar zituzten eta 700 saldu dituzte. Zenbat sagar geratzen dira?
D kalkulua	$68 - 20 =$ <i>(68 ken 20 da... ; 68 ken 20 berdin...)</i>
E kalkulua	$32 : 8 =$ <i>(32 zati 8 da...; 32 zati 8 berdin...)</i>
F kalkulua	$3 \times 4 + 5 =$ <i>(3 x 4bi segundotako etena.. gehi 5 da...)</i>